

Ondoren datorren testua "La política lingüística a l'Estat espanyol: balanç i perspectives" izeneko kongresuan azaldutako txostena duzue. Dagoeneko Alcoi-ko Gabinet Municipal de Normalització Lingüística-k argitaratu du liburu gisa. Bertan, hainbat autorek elebitasunaren politika defendatu izan dute instituzionalki. Ene artikuluxka, ordea, jardun honen aurka doa. Orain arte katalanera besterik agertu ez bada ere, gaurko honetan eta EHE elkarteak bultzatuta nahiz lagunduta, euskaraz argitaratzen da. Ikusiko denez, elebiduntasuna kontzeptuan oinarrituta, elebitasun politikak ematen duena ebaluatzerik posible izateaz aparte, hizkuntz politikan normalkuntza bilatu ahal izateko beste bideak aurkitzea ere ahalbidetzen digu. Areago, 1996ko hastapenetan Leioan eta Kultur Kontseilaritzapean Eusko Jaurlaritzaren hizkuntz traerari luzatutako funsgabe-ko goraipamen eta apologiak entzun eta gero, idazki honetan azaltzen dena zabaltzeari inoiz baino premiazkoagoa deritzogu. Agian ez da erraza izango ulertzeko. Behar bada luzetia ere bada baina, edozein modutan ere, elebitasunak ezkutatzen duen amarrua gehiago antzemateko baliogarrria delakoan nago.

HIZKUNTZ POLITIKA ESTATU ESPAINIARREAN: BALANTZEA ETA PERSPEKTIBAK

Fito Rodriguez Bornaetxea

EHU-UPVko irakaslea

Itzultzailea: Miren Irigoien

Kepa Enbeitaren bertsoan gertatzen den modura, dena errazagoa da hizkuntzekiko maitasunean oinarrituz hitz egiten denean (hizkuntzetan oinarrituz, azken finean), egoerak, gure kasuan bezala (*estatu espainiarreko* hizkuntz politikak), beste erreferentzia sozial edota politiko batzuk kontutan hartzea behartzen gaituenean baino. Dena den, «ukipeneko hizkuntzalaritza»-tik soziolinguistika deritzonera pasatzeak akademikoki suposatzen duenak, hizkuntzen pragmatikan berez aitzakiarik gabeko perspektiba dena azaltzen du maila disziplinarrean, hau da: «hizkuntz gatazka hizkuntzen artekoak baino gehiago hiztun taldeen artekoak dira». Hots, hitz teknikoagoetan esanez: *glotofagia glotopolitika* da.

Horregatik bildu ohi gara hizkuntza gutxiagotueta hiztunak gaurkoa bezalako ekitaldietan. Soziolinguistikaren aparatu akademiko eta disziplinarra edukitzeko beharra daukagun arrazoi berberetatik. Biziraupe-nagatik, soil-soilik. Gizarte-egitura edota egoera indartsuagoek, zeintzuen hizkuntzek gurea ordezkatu eta gutxiagotzen duten, bortizki edo modu atseginean irents gaitzaten galerazteko, ximpleki. Laponceren esaldiak (*Lan-gue et Territoire*, 166. orr.) indarrean dirau: «*le chevauchement des langues est toujours à l'avantage de la langue dominante*».

Estatu espainiarreko hizkuntzen arteko ukipen kasuetan, bai ofizioz «gizarte zientzilariak» direnen eta bai gazteleraren hiztunen iritziz publikoaren beligerantzia etengabea da periferiako hizkuntzek jasaten duten gutxia-gotze eta glotofagia prozesuan. Euskal Herriari gagozkiola, intelektual eta akademiko ezagunen iritzien zenbait aipamen hemen jasotzeak baiez-tapen hori egiaztatzen lagun dezake (in «El problema del bilingüismo en el País Vasco», *Cuenta y Razón*, 12. zkia., Uztaila-Abuztua, 1983): - «Hay que respetar los términos reales de los problemas... los que hablan solamente vascuence representan ciertas formas de vida relativamente primitivas, y esto significa un aislamiento... el vascuence no está en los textos, no está en los diccionarios...(!) Julián Marías (12. eta 13. orr.).- «Enseñar el castellano me parece un deber fundamental... para que los vascos no se constituyan en perturbadores de su propio pueblo». Pedro Laín Entralgo (18. orr.).- «Hay algo que está funcionando mal, una hostilidad entre gentes de los territorios de España. Y naturalmente, la cuestión lingüística anda siempre en medio». Fernando Lázaro Carreter (19. orr.).- «Si en el franquismo el euskera tuvo un valor político como reivindicación democrática, ahora, comienza a manifestarse con otra trascendencia política, como signo de división y enfrentamiento... movidos por una especie de coacción político-social muchos adultos se matriculan en cursos de euskera. Lo que nunca se debería hacer es forzar el proceso lingüístico del País Vasco, utilizando a la población de conejillos de Indias de la política, o de los buscadores de empleo».(!). Fernando García de Cortázar (36-37. orr.); eta horiek intelektualak dira! Aipatzen ari naizen elkarrizketa berberean (Bilboko «El Correo Español» egunkariak antolatua «Fundes»ekin elkarlanean) antzeko «bitxiak» bota zituzten José Luis Pinillos, Juan Pablo Fusi edo Manuel Secok kultura espainiarreko beste zenbait pertsonalitate ezagunekin batera, baina ez ditut guztien ekarpenak adieraziko errepikatzea izango litzateke-eta.

Egungo iritziz publikoaren mailarik hurbilenean, hizkuntz beligerantzia hori islada dezakeen gertaera bat Araban jazo berri dena da: Herrialde Historiko horretako Foru erakundeek lurralde horretan euskara zenbat erabiltzen den neurtzeko azterlana Madrileko Tabula V Taldearen esku uzteko hartutako erabakia, enpresa hori Amando de Miguel soziologoak zuzendutakoa izanik eta pertsona horrek aurkezpenik behar ez duelarik hizkuntza gutxiagotuei buruz behin eta berriz hartu dituen jarrerak eza-gunak direlako, katalanaren hiztunen artean batik bat. Aipatu enpresak egindako galdeketak aparteko atala merezi luke, zeren eta bai euskarari hizkuntzaren eta ortografiaren ikuspegitik ematen zaion trataera penagarriak eta bai bertan egiten diren galdera engainagarriak «glotofagia zientifikoa» dei genezakeenari buruzko komunikazioa mereziko bailukete. Azpimarragarria da prospekzioarako galdesorta «hiztunen alderdi pertsonaletan» oinarritzen zuelako argudiopean enpresa hori aukeratu izana, eta ez arlo horretan gaitasuna nahiko erakutsia duten beste euskal ente batzuk (SIADECO, EUSTAT,...). Horrela, aldi berean oso «had hoc» eta batere susmagarriak ez diren erakundeen lankidetzarako eskaintzak alde batera utzi dira, hala nola Eusko Ikaskuntzarena eta Euskaltzaindiarena

1) Frantziako Estatuaren menpeko zonalde euskaldunean, 1793ko urriaren 17ko dekretua onartu zenetik frantsesaren ofizialtasuna bakarrik ezarri zen. Ikus *Instruire, mais dans quelle langue?* in *J'étais enfant en 1789*. Centre national de documentation pédagogique. Dossiers de documentation, 16. zk., 116. orr. Estatu espainiarrean dagoen zonaldean, berriz, Cadizeko Gorteek (1812) inposatutako politika eta hizkuntz zentralismoa irakaskuntzaren alorrean 1857ko «Ley de Instrucción Pública» delakoak zehaztu zuen eta lege horrek eskola espainiarrera joan beharra ezarri zuen. Ikus Rgz. Bornaetxea, F. *Egungo Sistema Eskolarraren eraikuntza eta Euskal Eskola Publikoari buruzko proiektuak direla eta egin beharreko oharpenak*. Tantak. (Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldizkaria), 4. zk., 1990.

2) Gai horri buruzko erreferentzia egokia aurki dezakegu Alvarez Enparantza, J.L.-ren (Txillardegi) *Euskal Herria Helburu* liburuan. 1994. Txalaparta, bereziki lehenengo kapitulu-luan, «Atzeraka» izenekoan, 17-94. orr.

**«Espainiako
konstituzioan, aldiz,
zentralismoaren
kolonizazio borondatea
da nagusi hizkuntz
eskubideen azalpenean,
zeintzuek Errege
Katolikoek
gramatikariak jadanik
inperioko hizkuntza
deitu zuten gazteleraren
aldeko legezko
hierarkia-maila
finkatzen duten, egungo
Karta Magnak
suposatzen duen oinarri
juridikotik»**

(Ikus Argia aldizkaria, 1522 zk. —1995eko martxoak 19— «Arabarren eus-kara galbahe arrotz batean» izeneko artikulua, 39-41 orr.). Ezaugarri hori behin eta berriz ematen da elebitasun politika deiturikoetan (benetan hiz-kuntza gutxiagotuekiko politika glotofagikoak direnetan), datu bilketa eta norbanakoen eskubideen alorra baitituzte oinarri. Horregatik landu nahi izan dugu elebiduntasun kontzeptua, hain zuzen ere hizkuntzen arteko ukipen egoerek norbanakoengan duten emaitza ikertu ahal izateko, hau da, elebitasun politiken logikari jarraiki, politikok diharduten eremu-
muan bertan —hots, pertsonengan— dituzten ondorioak ateratzeko.

Dena den, mende bukaerako Europa nekatu honetan, gutxiagotze pro-zesuan dauden hizkuntzen piskanakako ordezkapena geroz eta modu hi-
ritar, demokratiko, legal, sotilagoan egiten da, ia gourmetaren estetikari
dagokion moduan... eta elebitasun politika izena ematen zaio. Lehenago
aipatu dudan elkarrizketan, eta beligerantzia glotofagikozko jite horren
testuinguruan, F. Lázaro Carreterrek ondorengoa baieztatu zuen (21. orr.):
«El Estado debe conducir al deseo generalizado y a la aceptación voluntaria
del bilingüismo, pero que esa enseñanza se considere siempre integrada en la
cultura total de España, a la cual pertenecemos». Politika eta hizkuntz ku-
tsuko jarrera horixe da, hain zuzen ere, hemen aztertu nahi nukeena. Es-
painiako Estatuko hizkuntza gutxiagotuen arteko bilera batek ahalbide-
ratzen duen ikuspuntutik. Sozio eta psikolinguistikaren, eta bereziki ele-
biduntasunaren inguruko azterketak eta ikerketak kontzeptualki eskain
diezaguketen laguntzaren bitartez. Gazteleraren gailentasun juridiko/
politikoak inposatzen dizkigun elebitasun politiken esparruan. Estatu
honetako hizkuntza gutxiagotuen gizarte egoera bakoitzak behar duen
hizkuntz normalkuntzarako politikak martxan jartzea zilegi egingo du-
ten ulermena eta laguntza aurkitzeko itxaropenean.

1.- ESTATU ESPAINIARREKO ELEBITASUN POLITIKA, EUSKAL HERRITIK IKUSITA

Euskararen egoeraz soilik ari bagina, nahitaez aipatu beharko genuke bere
hiztunen komunitatea historian zehar bi estatu ezberdinetan integratua /
desintegratua izan zela (Gaztela-Aragoa-1512; Frantzia-1620), bai eta ho-
rrek bere hizkuntzaren ezagupen eta gizarte-erabileraren mailan ekarri
zituen ondorioak ere¹. Dena den, ihardunaldi hauen izenburuak dioen
moduan, autonomien estatu espainiarra deitutako honetan aplikatzen den
elebitasun politikari dagokionez euskarak gaur egun duen egoeraz ariko
gara soilik. Horrek ez du esan nahi gure hizkuntzaren gutxiagotze pro-
zesua ulergarri egiten duen eboluzio historikoari² duen garrantzia ema-
ten ez diogunik, baizik eta batik bat gaur egungo ezaugarri sozio-histo-
rikoek definitutako abagadunean aztertuko dugula.

1978ko Espainiako Konstituzioak, ezaguna denez, hirugarren artikuluan
gastelera jakin beharra agintzen du, eta hartzen duen lurraldeko gaine-
rako hizkuntzak jakitea borondate mailan kokatzen du. Konparaketa egi-
nez, gogora ekar dezagun 1962an onartua izan zen Aljereko Konstituzioa

—denboran eta tokiz hurbilekoa den adibidea erabiltzeagatik—, honek, hirugarren artikuluan hain zuzen ere, «*L'arabe est la langue nationale et officielle de l'Algérie*» baitio, nahiz eta parlamentuan zeuden FLNko ia ordezkari guztiak frantsesez bakarrik hitz egiteko gai izan («tamazirt» —berberiera— hizkuntzaz mintzatzen zen Aljereko biztanleen %25az ez zen ezer esaten, eta gaur egun ere ez da esaten). Hala ere, eta zehaztasun gehiago beharko lituzketen eta gure arreta desbideratuko luketen ñabar-dura eta distantzia guztiak alde batera utziz, hirugarren artikuluko horietako bakoitzak txanponaren alde desberdina azaltzen du. Aljereko konstituzioan argi ikusten da Metropoliarekiko deskolonizatzeko borondatea, eta horixe izan da hain zuzen ere Maghrebeko emantzipazio sozialeko prozesuek izan duten ezaugarrietako bat hizkuntzaren eta kulturaren ikuspuntutik; Espainiako konstituzioan, aldiz, zentralismoaren kolonizazio borondatea da nagusi hizkuntz eskubideen azalpenean, zeintzuek Errege Katolikoen gramatikariek jadanik inperioko hizkuntza deitu zuten gazte-larren aldeko legezko hierarkia-maila finkatzen duten, egungo Karta Magnak suposatzen duen oinarri juridikotik.

Horren ondorioz, Euskal Herrian bai hizkuntz politikak eta bai dagokion legeria propioak ere (Euskal Autonomi Elkarteak eta Nafarroakoak irakaskuntzan euskara erabiltzeari dagokionez onartutako hamabi lege eta dekretu³⁾) hizkuntz hierarkia hori isladatu behar izan dute, eta horren zehaztapena norbanakoen eskubideetan oinarritutako normalizazio-politikan gauzatu da, elebitasun hitzaz definitu denean.

Horrela ba, 1983. urtean, orduan EAJko sailburua zen eta gaur egun Eusko Alkartasunaren inguruan kokatzen den Pedro Miguel Etxenikeren zuzendaritzapean onartutako «Euskararen politikarako Oinarriak» agiriak, argi eta garbi planteatzen du «elebitasunaren arazoa» dela-eta Eusko Jaurlaritzak egiten duen aukera (17. orr.):

«Elebitasuna izanik Gizartea batzen duen helburua, Eusko Jaurlaritzari dagokio hartara iristeko bide eraginkorrek eskaintzea». (...) «Erabateko elebitasuna, edo definizioz, guztiz elebiduna den gizarteak biztanle guztiek bi hizkuntzak jakitea lortu behar du (...)».

Horixe izan da bai Euskal Autonomi Elkartearen Jaurlaritzaren eta bai bere proiektzio publikoaren oinarria eta konstantea. Bai bere hizkuntz politikarena eta bai horrek inferitutako eta lortutako transferentzien bidez zuzendu ahal izan duen hezkuntza eredua ere (gogora ekar dezagun, adibidez, unibertsitateko irakaslegoa oraindik Administrazio zentralaren eskuduntza zuzena dela).

Horrela ba, Kulturako hurrengo sailburuek (Joseba Arregik eta Mari Carmen Garmendiak), aldi berean Jaurlaritzaren bozeramaleak izan direnek, eta egungo bozeramalearen kasuan Hizkuntz Politikarako Idazkaritza bera zuzendu izan duenak, behin eta berriz errepikatu dute elebitasunean zehazten diren norbanakoen eskubideen alde egindako aukera.

Hala zioen Joseba Arregik *El Correo Español* Bilboko egunkarian argitara-

3) Apirilaren 20ko 1049/1979 Errege Dekretua, euskara Euskal Herriko Irakaskuntza Sistematan sartzeari erregulatzen duena (1979ko maiatzaren 25eko EHAA).

1979ko abuztuaren 3ko Hezkuntza eta Zientzia Ministeritzaren agindua, euskara Euskal Herriko Irakaskuntza Sistematan sartzeari erregulatzen duen Apirilaren 20ko 1049/1979 Errege Dekretua garatzen duena (1979ko azaroaren 16ko EHAA, 31 zenb.).

Azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizko Legea.

Uztailaren 11ko Hezkuntza eta Kultura Sailaren 138-1983 Dekretua, Euskal Herriko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena (1983ko uztailaren 19ko EHAA, 188 zenb.).

Nafarroako "Euskararen Legea". 18/1986.

Maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretua, Nafarroan unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan euskara sartzeari erabiltzea erregulatzen duena.

Hezkuntza eta Kultura Sailburuaren Azaroaren 3ko 1049/1988 Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan euskararen eta euskara bidezko irakaskuntzarako oinarrizko programak onartzen dituena.

Uztailaren 11ko 236/1992 Dekretua, Euskal Autonomi Elkartearen Haur Hezkuntzako Kurrikuluma ezartzen duena.

Abuztuaren 11ko 237/1992 Dekretua, Euskal Autonomi Elkartearen Lehen Hezkuntzako Kurrikuluma ezartzen duena.

Euskal Eskola Publikoari buruzko legea (1, 1993-02-19).

Euskal Autonomi Elkartearen unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei buruzko legea (1, 1993-02-19).

1993ko maiatzaren 4ko Dekretua, ikastolen aukera eskubidea erabiltzeko prozedura eta horien sarrera sare publikoan erregulatzen duena.

4) Euskaldunek gaztelera ere beren hizkuntzat hartu behar dute... (1991). Bena zaila egingo zaie estatu frantsesaren administraziopeko zonaldean bizi diren euskal hiztunei borondate horren alde ona ulertzea. -Gizarte elebidunaren aldeko garen guztiok (1992ko azaroak 13). Argi eta garbi, beraz, ez norbanako elebidunen alde baizik eta gizarte-elebitasunaren alde. -Gehienok uste dugu hizkuntza bakoitzak bere erabilera eremuak izan behar dituela eta eremu horiek ez dutela derrigorrez berdinak izan behar. (1994ko apirilak 22). Esaldi hori oso egokia litzateke diglosiaren kontzeptua azaltzeko, historikoki izan dituen azepzio ugariatako (Psichari, Ferguson, Fishman...) edozeinetan izanik ere. -Horretarako, bi komunitateen arteko komunikazioa eta elkar-tasuna sendotu beharko litzateke. Baita hizkuntzen arloan ere. (1994ko apirilak 22). Ez du komentariorik merezi...

5) *La mayoría de los vascos está apostando para que la sociedad vasca del mañana sea bilingüe* (Egin, 1995eko urtarrilak 12).

6) Herritarren gehiengoak onartutako hizkuntz politika bat egitea... *Euskal Herriko hiritar gehienek onartuta daukate herri honen etorkizunak elebiduna izan behar duela*. Egin, 1995 otsailak 1.

7) "Elebitasuna eta ideologia" agiriko zatia (Udako Euskal Unibertsitate-Iruñea, 1986ko uztaila). Euskal Herrian Euskarazek argitaratua, 1994. Bilbo. 91.orr.

8) «Periferia»ko kulturak oso begiko ez baditu ere baieztapen hori egokiro jazen duen erreferentzia bat ematearren, ikus El País egunkariko *La sociedad bilingüe* txostena. 1988ko urria.

9) *Langues opprimées et identité nationale*. Université de Paris VIII. -Vicennes à Saint-Denis. Département des Langues et Cultures Opprimées et Minorisées. 1984.

10) Rgz. Bornaetxea, F. *La Construcción de la subjetividad Occidental* in «Derechos Humanos Individuales. Derechos de los Estados, Derechos de los Pueblos». Herria 2000 Eliza. Bilbo. 1990.

11) Alvarez Enparantza, J.L. "Txillardegi". 1990. Soziolinguistika egunak in "Hezkuntza / Hizkuntza". EHU. Bilbo. 55-62. orr.

tutako «De definiciones y problemas lingüísticos» artikuluan. «*Nosotros apostamos por una sociedad bilingüe*» (92/02/10). Aldi bertsuan (92/01/24), Mari Karmen Garmendiak, orduan Hizkuntz Politikarako Idazkari zenak, ondorengoa idatzi zuen egunkari berean: «*Somos nosotros, y yo la primera, los que propugnamos el bilingüismo en este País*». Aitorpen hori etengabe errepikatu zuen kargu hartan egonik Eusko Legebiltzarraren aurrean egindako agerraldietan⁴. Gaur egun ere errepikatzen du, bere aurrekoek egiten zuten moduan, Kulturako Sailburu eta Jaurlaritzaren Bozeramale kargutik⁵, eta era berean, Hizkuntz Politikarako Idazkaritzan bera ordezkatu zuenean J.M. Zeberioek ere errepikatzen zuen⁶.

Horren ondorio dugu hizkuntz normalkuntzaz ez, baizik eta elebitasunaz hitz egiten dela. Hizkuntz eskubideen mailan Espainiako konstituzioak finkatzen duen goimuga onartzen da, baina lege horretan estatuko hizkuntzen trataerari dagokionean juridikoki ematen den asimetria bistakoa da, eta etorkizuneko alternatiba gizarte-elebitasunean edo «herri elebidun»ean (¿?!) oinarrituz planteatzen da. Haatik, Euskal Herrian Euskaraz elkar-teak definitzen zuen moduan, «*estatu batek elebidun dela erabakitzen duen unetik, gutxienez bi hizkuntzetan elebaker diren edo izan nahi duten giza multzoz osatuta dagoela onartu behar du. Hau onartzen ez duen bitartean estatu elebaker baten aurrean gaude*»⁷.

Hizkuntzen arteko ukipen egoera, bai egungo Estatuetan eta bai historian zehar, egoerarik normalena eta hedatuena dela pentsarazten diguten nazioarteko erreferentziak⁸ ugariak dira. Ez litzateke, beraz, «arazo» edota «patologia» gisa ikusi behar. Gainera, aztertutako erreferentzia guztien artean, nahiko bistakoa dirudi konpentsaziozko hizkuntz normalkuntzarako estrategiak hizkuntza gizarte-eskubide orokor gisa hartzean oinarritu direla eta ez norbanakoen eskubideak eskubide publikoen aurretik babestean⁹. Era berean, badirudi nahiko argi dagoela soziolinguistikako axaleko irakurketa egitea nahikoa dela, maila pragmatikoan, hizkuntza gutxiagotuen normalkuntzan lurralde erreferentzian oinarritutako hizkuntz erabilpenaren irizpideak norbanakoen eskubideetan oinarritutakoen aurretik lehenesteko¹⁰. Laponce-k dioen moduan (Langue et Territoire, 148. orr.):

«*La reconnaissance de droits linguistiques purement individuels (du type: chacun parle la langue de son choix) n'est, et ne saurait être, qu'une reconnaissance du statu quo, donc de l'asymétrie s'il y a asymétrie. Une telle reconnaissance n'est généralement qu'une forme déguisée ou involontaire d'assimilation... Si l'on cherche à protéger une langue minoritaire, non pas par des droits individuels inefficaces, mais par des droits de groupe, on est amené, presque nécessairement, à envisager des droits territoriaux*».

Hala ere, gai honetan horren eraginkorra gertatu den politika garatu eta gauzatzeko aukera planteatu beharrean¹¹, eta haren arabera eremu fisiko, lurraldetasunezko (hizkuntz mugak, hizkuntz paisaia, etabar) eta sinboliko (irakaskuntza, administrazioa, komunikabideak, etabar) monoglotoak ezarri, Euskal Herrian behin eta berriz norbanakoen eskubideetan oina-

rritutako gizarte elebitasunerako politikan jartzen da indarra, eta are larriagoa dena, politika horrek sortzen dituen norbanako elebidunengan eta horien arteko gizarte-harremanetan ematen diren joera eta emaitzei buruz administrazioak ez du batere ebaluaketa fidagarriarik egiten.

Hutsune hori betetzea izan da, nolabait, elebiduntasunaren inguruan egin ditugun ikerketen helburua. Hau da, modu ximple eta matematikoan mugatu ahal izatea gizarte elebitasuneko politikak zuzendutako hizkuntzen arteko ukipen egoerak, gurea bezalakoak, pertsonengan dituen hizkuntz ondorioak eta ondorio kognitiboak². Geratzen zaidan tokiaren zati handi bat gure ikerketen emaitzak azaltzeko erabiliko dut, baina aurretik pare bat gauza argitu nahi nituzke, komunikazio labur honen mezua izan daitekeena osatzen eta horrela hobeto ulertzen lagunduko baitute. Lehen, eta begibistakoa iduri dezakeen arren, gizarte-elebitasuneko politikak dakartzan ondorio kaltegarriek modu bertsuan eragiten dietela gure inguruneke ia hizkuntza guztiei (europar edota mendebaldeko, kultura alfabetatuko, eta logikoa denez, hizkuntza gutxiagotuaren gizarte-normalkuntza helburu gisa hartuta eta hori inoiz ahortzi gabe egin behar dela lana¹³. Eta bigarrena, hizkuntzen arteko ukipeneko beste egoeretako esperientziak ezartzen dituzten ildok kontutan hartu behar direla beti bide horretan.

Beraz, komenigarri iruditzen zait antzeko estatu egituretan hizkuntza bat baino gehiago elkarbizitzen egon diren egoera batzuk aipatzea, ondoren etorriko dena ulertzeko gakoak atera ahal izateko.

HIZKUNTZ GATAZKEN IRTENBIDE EZ-GLOTOFAGIKOA

Ez dugu ba, gorago esan bezala, hizkuntz politika konparatuen azalpen zehatz-mehatza emango, gainera gauden foro adituan handiustekoa izango litzateke eta. Gure abiapuntuaren antzekoa izan duten egoeren irtenbidearen gakoa ulertzen lagunduko diguten koordenatu gutxieneke batzuk aztertuko ditugu soilik. Azken finean, azaldu nahi dena da, edozein arrazoigatik indartsuagoak ziren beste hizkuntzekin ukipenean egoiteagatik denbora asko ez dela gutxiagotze prozesuetan aurkitzen ziren hizkuntza batzuk zein ildo historikori esker dauden gaur egun normalduta eta beren hiztunek behar dituzten erabilpen maila guztiei erantzuteko gai diren.

Zergatik da, adibidez, flandriarren hizkuntza, mende hasieran nederlandarren desberdintzat jotzen zena eta inolako kultur garapen modernorik ez zuena, gaur egun hizkuntza normaldua Belgikan¹⁴ maila guztietan? - Zergatik suomieraren gisako hizkuntza bat, 30eko hamarkadaren hasieran desintegratua egonik eta corpusari eta statusari dagozkion arazorik niminoenak ere konpondu gabe izanik eta ia tradizio idatzirik gabeko hizkuntza izanik, gaur egun hizkuntza nazional sendoa da eta errusiera, suediera eta alemanaren moduko hizkuntza indartsuen erasoaldi glotofagikoak gainditu ditu?¹⁵ - Zergatik Quebec-en frantsesa, 60ko hamarkada aldera «joul»a besterik ez zenean, alegia, ingelesaren hiztunen uholdean

12) Erriondo, L - Isasi, X. - Rodriguez, F. Hizkuntza, Hezkuntza eta Elebiduntasuna. 1993. UEU. Bilbo.

13) Horixe zen lortu nahi nuena, ikerketarako ildo berberean, 1994ko uztailearen hasieran Limerick-eko (Irlanda) Udako Unibertsitatean egin zen "The lesser used languages and teacher education" mintegian *Bilingualism and Bilinguality. A Sociolinguistic analysis of the Basque Country and pedagogic consequences...* lanarekin; bertan izan ziren zenbait galestar, bretoi, irlandar, friular, kornikar, etabar, eta haientzat elebitasuna lortzeko duten aldarrikapena da gaur egun, eta nekez uler dezakete planteamendu horrek beraien hizkuntzaren biziraupenari dagokionean ondorio kaltegarriak izan ditzakeela.

14) Nahikoa da Belgikako artzapezpiku katolikoak (M. Mercier) 1906an esandakoa gogora ekartzea. «*Quiconque comprend le rôle de l'université ne peut raisonnablement pas prétendre de mettre le français et le flamand sur pied d'égalité*». Badirudi jaun hark, bere fede guztia horretan jarrita ere, ezin zuela sinetsi besteak beste Leuven, Gent edo Antwerpen-go unibertsitateen mailakorik egon zitekeen neerlandaraz. Ikus, halaber, Vandeputte, O. - Tromp, H - Cadiñanos, J.L. 1993. El Neerlandés. (Hogei milioi neerlandiar eta flandriarren hizkuntza). Flandiar-neerlandiar Fundazioa. Rekkem.

15) Riiho, T. *Finlandiako Kasua* in "Hizkuntza / Hezkuntza". Op. cit. 65-76. orr..

16) Ikus *Rétrospective: d'une crise à l'autre* (*La révolution tranquille des langues officielles et le défi au partenariat*) in Rapport Annuel 1990. Commissaire aux langues officielles. Ottawa. Horrela, Brunswick Berriko laupabost zonaldek Eskozia Berriko eta Eduardo Printzearen Irlako lurralde batzuei atxikitze asmoa izango lukete, frantsesaren hiztunei hizkuntz eskubide gehiago edukitzea ahalbideratuko ziekeen «hamaikagarren» probintzia osatuz.

17) Turi, G. *Introduction au droit linguistique in Langue et Droit*. Wilson et Lafleur. Montreal 1989. *Le droit linguistique et les droits linguistiques in Les Cahiers de Droit*. 31.zk. 1990.

18) Rgz. Bornaetxea, F. 1993. *A importância do espaço simbólico na recuperação das línguas minorizadas: o caso dos municípios monolíngues no País Basco*. In *O uso das línguas na perspectiva da Europa Comunitária*. AGALIA. A Corunha. 136-148. orr.

19) Euskal Herrian Euskaraz mugimenduak aurkeztutako mozioa 25 udalerri onartu zuen hasieran, eta gero 32ra iritsi ziren. Administrazio Zentraleko ordezkariak sistematikoki salatu eta helegin zituzten mozio horiek.

20) Hala ere Autonomi Elkarteko Epaitegi Nagusiak arrazoia eman dio aipatu mozioen eskariari (Egunkaria, 1992ko apirilak 24).

21) 1986ko apirilaren 18ko 781 Errege Dekretu-Legeak 35.3 artikuluan zehaztutakoan oinarrituz. Gipuzkoako A. O.ren 12. alean, 92-01-29koan argitaratua. 694.

murgilduta atzerabidean eta etorkizunik gabe zegoen frantsesaren hiztunen «patois»a izanik, gaur egun kultura eta nortasuneko hizkuntza da eta bizi zuen gutxiagotze egoera iraultzea lortu du?

Badirudi kasu horietan guztietan ihardueraren nondik norakoa, nahiko eraginkorra gertatu dena, beti berbera izan dela: hizkuntz bermeak eskubide kolektiboetan oinarritzea eta horren ondorioz lurraldetasunaren araberrako glotopolitika aplikatzea.

Jakina denez, Belgikako kasuan (1932ko legea) hizkuntz zentsutik ateratako parametroak kontutan hartuz, alegia, %20/80 hezkuntzarako eta %30-70 udal administrazioarako, zonaldeak flandriar, walloniar eta mistotan (Brusselaren kasua) banatu ziren, eta gaurdaino ia aldatu gabe iraun duten muga horiek flandriarren hizkuntzaren garapenaren mesederako izan ziren nahiz eta ordurarte ordezkapen prozesuan egon argi eta garbi. Finlandian, aldiz, mugak portzentaiaz aldatu dira piskanaka (%12/88; %10/90; %8/92) hizkuntz mapa monoglotoaren definizioaren arabera, nahiz eta Belgikaren kasuan bezala, zonalde batzuetarako, adibidez hiribururako (Helsinki), estatutu elebiduna mantendu duten. Hala ere, inolako zalantzarik ez dago politika horrek suomierari sozialki aurrera egiten lagundu diola.

Kanadan, aldiz, frantsesaren edo ingelesaren lurralde erabilpena zehazteko parametroak %10/90ean finkatu ziren (Quebec-en, «Commission d'enquête sur la situation de la Langue française et sur les droits linguistiques», 1968ko abendua), nahiz eta horien ondorio diren hizkuntz mugak Belgikako kasuan bezain mugiezinak ez izan¹⁶.

Kasuistika alde batera utziz, argi dago hizkuntza horiek erabilpen eremuak berreskuratzea ez dela izan norbanakoaren eskubideetan oinarritutako elebitasuna aplikatzearen emaitza, lurraldetasunean eta eskubide kolektiboetan oinarritutako hizkuntz politikarena baizik¹⁷.

Illo horretan, eta Euskal Herrian Euskaraz mugimendu sozialak elebitasunaren politika ofizialaren ondorioz gazteleraren alde ematen ari zen asimilazioari buruz 1987an egin zuen azterketaren ondoren, hasieran «Udal-erri Elebakarrak» izena hartu zuen ekimena sortu zen Euskal Herrian. Helburua ondorengoa zen: udal zentsuetako hizkuntz datuen arabera euskararen ezagutzaren erlazioa %80/20aren parekoa edo handiagoa zuten udaletan mozioak onartzea, horien ondorioz eta beraien hizkuntz eskubideez baliatuz harreman publiko eta instituzionaletan euskararen presentzia bermatua egon zedin beti¹⁸. Proposamena egin zen garaian (88ko udazkena) guztira 107 ziren finkatutako ezaugarriak betetzen zituzten udalerriak¹⁹. Aipatu beharra dago aukera hori Euskal Autonomi Elkarteko Euskararen Legeko 8.3. artikulua ahalbideratzen zuela eta, 32 Udalek ekimen hori aplikatu nahi izan zutenean horrela euskaraz bizi ahal izateko, Epaitegi Konstituzionalak derogatu egin zuela²⁰.

Ekimen horren garapen gisa UEMA, udal-erri euskaldunen mankomunitatea²¹ eratu zen, zeinak euskaraz bizitzea erabakitzen duten udalei ha-

rreman eta azpiegitura soziolinguistikoa, juridikoa eta administratiboa ematen dien²². Mankomunitatean sartzean zerbitzu guztiak euskalduntzeko bost urterako plana egiteko baldintza onartzen da²³, eta horrez gainera, guztien helburua den udal bizitzaren piskanakako euskalduntzea defendatzeko eta operatibizatzeko ordezkariatza amankomuna edukitze-ko aukera eskaintzen zaio, bai maila juridikoan eta bai politikoan.

Estatu espainiarreko gaur egungo esparru juridiko-politikoan hizkuntza gutxiagotuentzat bidezkoak diren aukeren artean, hizkuntz gatazka konpontzeko lurraldetasunaren irizpide kolektiboa aplikatzeko joera hori bereziki aztertua izan zen 1994ko azaroan, Donostian, EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean burututako ihardunaldi batzuetan²⁴, eta orokorki EKB erakundeak eta SIADECO Soziologia Institutuak 1989, 1991 eta 1993an biztanleriaren parametroen arabera egindako euskararen erabilpenaren neurketen bidez, beste neurketa txikiago batzuk ere ahaztu gabe²⁵. Emaitzek, bai euskararen gizarte presentziaren normalizazioaren mailan, bai hiztunek hizkuntzarekiko duten leialtasun koefizientearen mailan, eta baita, ondoren emaitzak aztertzerakoan ikusiko dugun modura, elebiduntasunaren mailan ere, herri horietan hizkuntza berrindartzeko joera besteetan baino askoz argiagoa, konstanteagoa eta eraginkorragoa dela adierazten dute, alegia, elebitasunaren aukeratik eratorritako eskubide pertsonaletan soilik oinarritutako glotopolitika aplikatzen den herrietan baino.

Dena den, gogoratu behar da ekimen hori, beste hizkuntz gatazka bartzuen konponketa ez-gltofagikoaren parekoa dena, garapen egokia izaten ari bada ere, orain arte Hizkuntz Politikarako Idazkaritzaren laguntzarik gabe aritu behar izan duela, abertzaletasun tradizionalako iritzi publikoaren sortzaileen aurkako jarrera publikoari eta autonomien estatu honetako botere politikoaren pertsekuzio juridiko eta administratiboari aurre eginez²⁶.

Hala eta guztiz ere, Euskal Herrian aplikatutako hizkuntz politikan Udal-erri euskaldunen mankomunitateak kualitatiboki bere garrantzia duen arren, kuantitatiboki oso errealtate mugatua eta nahiko testimoniala da (gaur egun 22 udalerri) elebitasunak erakundeetatik duen laguntza orokorraren barruan. Horregatik, zalantzarik gabe duen interesagatik nabarmendu ondoren, azter ditzagun jarraian gizarte-elebitasunera bideratutako politika ofizialaren ondorioak.

ELEBITASUNA ETA ELEBIDUNTASUNA. EUSKAL HERRIAREN AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKOA ETA ONDORIO PSIKO-PEDAGOGIKOAK.

Gaur egun Euskal Herriko biztanleen %27ak daki euskaraz. Gizarte-erabilpenaren maila, aldiz, %11ren ingurukoa da²⁷. Euskaldunek bere hizkuntzarekiko duten leialtasun maila espero zitekeena baino handiagoa bada ere²⁸, hizkuntz komunitatea konpaktatzeko zailtasunak handiak dira eta gazteleraren hiztunak ez zaizkio komunitate horri atxikitzen, ez behintzat oso nabarmenki²⁹. Beraz, esan dezakegu euskara normalizatzeko zail-

22) Diario Vasco 90-03-15. Navarra Hoy 90-03-18.

23) Deia 90-09-28. Egin 90-11-21.

24) Rgz. Bornaetxea, F - Erriondo, L. 1994ko otsailaren 24tik 27ra. *Euskalduntasuna, Elebiduntasuna eta Kultur Erreferentziak*. UEMA. Donostia.

25) Euskararen Erabilpenaren Neurketa. Bat. 3-4 zk. (1991). 21-114. orr.

26) Deia, 90-10-20. El Correo, 91-06-12. Egin, 90-12-05.

27) *Euskararen ezagutza eta erabilpena* (1994) EKB. Op. cit.

28) Isasi, X. Hiztun erroldak, labela eta euskaldunak. Ibidem 27-50. orr.

29) Jaiotzez euskalduna ez den biztanleriaren %92,27 oraindik ez da euskaldundu. 1988. Zutabe, 18. zk. Donostia.

30) Ikus Euskal Herriko Unibertsitatearentzat geuk egindako ikerketa-lana: *Contraste empírico de un modelo matemático del uso social de lenguas en situación de contacto* (1994).

31) Ikus 1 Legea (1993-02-19), Euskal Eskola Publikoari buruzkoa, 18. artikulua, eta 3. oharrean azaldutako 236-1992 dekretuaren testua.

32) Ikerketa-lan honen xehetasunak Linguistika Aplikatuaren Espainiako Sozietaetaren Hamaikagarren Kongresuan (Donostia, 1991) azaldu genituen *Euskararen Herritik Erdal Mundura* komunikazioan. Isasi, X. - Rgz. Bornaetxea, F. 1993. argitaratu, berriz, Tantaken, Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldizkarian egin zen, 9. zk.an.

33) Rondal, J.A.; Comblain, A. 1991. *L'apprentissage des langues étrangères: aspects psycholinguistiques* in Les Langues Modernes, 85. zk. 10-22. orr..

34) Hammers, J.F. -Blanc, M. 1983. *Bilinguisme*. Mardaga. Bruxelles.

tasun objetiboak handiak direla³⁰.

Horri erantsi behar genioke, euskarazko «elebakarra»ren figura «ezlegezkoa» denez, gure hizkuntzak bizirauteko itxaropen soziolinguistikoak urriak direla. Are gehiago kontutan hartzen badugu bai Euskal Autonomi Elkarteko Jaurilaritzak eta bai Nafarroako Foru Gobernuak emandako egungo legeriaren arabera, hezkuntzaren alorrean gaztelerari eta euskarari ematen zaien trataerek berdintsuak izan behar dutela³¹, eta horrek, jakina, gaztelera geroz eta gehiago indartu eta euskara geroz eta gehiago «gutxiagotzen» duela. Desberdintasunak desberdintasun, gure egoera beste batekin pareka daiteke, hain zuzen ere Chruchoy lider sobietarraren agintepeko irekitze eta liberazio garaietan, 1959an Sobietar Batasuna zenean hizkuntz eta hezkuntza eredua aukeratzeko norberaren askatasuna saritzea bultzatu zenekoarekin... esan beharrik ez dago, eta gaur egun bere benetako neurrian ebaluatu dezakegu, errusiera inperialaren mesedetan eta sobietar makroestatuko gainerako hizkuntza gutxiagotuen kaltetan izan zela.

Antzeko egoeran deitu gintuzten 1990an Gipuzkoako Aia herritik (%98a euskal hiztunak, orduko mapa soziolinguistikoaren arabera), bertako eskolak bere curriculumak euskarari oinarrituz (D deituriko hizkuntz eta hezkuntza ereduak) bideratzen zuela eta, seme-alabek gaztelera ez zekitelako uste zutelako kezkatuta zeudelako gurasoak. Eskola hartako klustroak zonaldeko Pedagogi Aholkularitzaren bidez egindako eskaerak, eskolan gaztelera sartzeko metodologia egokia diseinatzearen beharra aipatzen zuen, horrela hizkuntza horren ezagutzan ustez zegoen hutsunea konpontzeko.

Bertan egindako ikerketak erakutsi zigun hutsune hori ez zela benetakoa (ez behintzat deskribatu zitzaigun bezalakoa) eta Aiako eskolako haurrek, gurasoek hala uste ez bazuten ere, gaztelera nahikoa ezagutzeaz gainera, zonaldearen hizkuntz normalkuntzarako erreferentzia guinea osatzen zutela. Aiako eskola kultura ez zen diglosikoa gaztelerearekiko eta ikasleek hizkuntza hori komunikaziorako erabiltzeko moduan menperatzen zuten³². Hizkuntzen arteko ukipen egoera hain zen asimetrikoa, ezen ustezko euskarazko elebakarrak matematikoki elebitasun orekatutik (0 indizekotik)³³ oso hurbil baitzeuden, eta hala ere gurasoek gaztelera presentzia kurrikular handiagoa izatea eskatzen zioten eskolari. Esperientzia hark *Euskal Herriko elebiduntasunaren* fenomenoak sakonago aztertze-
ra bultzatu gintuen, hots, ukipenean dauden hizkuntza zehatz batzuen ezagutzaren eta horiek egoera jakin bateko hiztunengan izan dezaketen garapenaren artean gertatzen den harreman kognitiboa aztertzeraz³⁴.

Elebiduntasuna Euskal Hezkuntza Sisteman: Urola bailarako eskola poblazioan emandako hizkuntz garapenaren azterketa.

Lerro hauen hasieran azaldu dugun moduan, hizkuntzen arteko ukipen egoeraren (elebitasuna) azalpen deskriptibo hutsak ezin dizkigu hezkuntza sistema jakin batean pertsonen lantzen dituzten hizkuntza desberdi-

nen arteko harremanaren eboluzioa identifikatzeko edo kuantifikatzeko beharrezkoak diren datuak eman. Datu horiek eskuratzeko elebiduntasunaren kontzeptua erabili, kuantifikatu eta operatibizatu beharko dugu. Horixe izan daiteke gure ikerketen funtsezko berrikuntza.

Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia, Pedagogia eta Filosofia karretako euskarazko kurtsoetako 45 ikaslerekin —ia guztiak jaiotzez euskal hiztunak zirenak eta lehen eta bigarren mailako ikasketak euskaraz burutuak zituztenak— egindako froga piloto baten bidez ikusi ahal izan genuen aipatu ezaugarriak betetzen bazituzten ere, gaztelerazko lexikografia ekoizteko gaitasuna (2495 hitz - %59/43) beren jatorrizko («ama-hizkuntza») eta hezkuntzako hizkuntzakoaren, alegia euskarakoaren, bikoitza baino handiagoa zela (1703 hitz - %40,57). Konstatazio hori are larriagoa bilakatu zen kuantitatiboki gazteleraz euskaraz baino hitz desberdin askoz gehiago ekoizten zutela (491-%62,16 gazteleraz, 299 - %37,84 euskaraz) eta gainera hitz horiek kognitiboki indar kontzeptual handiagokoak zirela egiaztatzean³⁵.

Horrekin, aipatu lagunek, orduko gure ikasleek, erakutsi zuten euskal hiztunak —eta beraz elebidunak— izan arren, elebiduntasunaren ikuspuntutik gaztelerarako joera zutela.

Horrela sortu zen aztertutako pertsonen elebiduntasuna kuantifikatzeko aukera, eta horretarako Elebiduntasunari buruzko Testa (EBT, Isasi 1995) asmatu zen, hortik abiatuz Elebiduntasun koefizientea inferitu ahal izateko³⁶.

Test horretan homofonoak ez diren eta kategoria semantiko ezberdinekoak diren bost hitz estimulu ematen dira aztertu beharreko hizkuntza bakoitzeko, eta horietatik abiatuz eta denbora jakinean, ahalik eta terminorik gehien ekoiztu behar dira beste hizkuntzan. Elebiduntasun koefizientea zera da: (hizkuntza gutxiagotutik abiatuz) hizkuntza batean ekoiztutakoari bestean ekoiztutakoa kentzeak ematen duen emaitza, eta erlatibizatzeke, aldiz, emaitza ekoiztutako guztiaz zatitu behar da; ondoren, komenigarri ikusten bada, ehun aldiz biderkatu behar da.

Matematikoki honela adieraz daiteke:

$$\text{Elebiduntasun koef.} = \frac{L1-L2}{L1+L2}$$

EBTa ondorengo hitz estimuluek osatu zuten gazteleraz: (euskaraz ekoizteko) Hermano, Nariz, Caballo, Pantalón eta Sol; euskaraz, aldiz (gazteleraz zegokion ekoizpena egiteko), ondorengo hitzak eman zitzaizkien abiapuntu gisa: Aita, Begia, Txakurra, Alkandora eta Mendia.

Froga bi urtez jarraian egin zen Gipuzkoako Urola-Kosta eskualdean, hots, 1990eko mapa soziolinguistikoaren arabera, euskal hiztunen portzentaia-ri dagokionez bigarrena baina bere egitura ekonomikoari dagokionez beste edozeinekin homologa daitekeen bakarra den eskualdean³⁷. Ez zen laginik hartu, irakaskuntza euskaraz (D eredu) ematen zuten hamar eskole-

35) Erriondo, I. - Isasi, X. - Rodríguez, F. 1993. *Hizkuntza, Hezkuntza eta Elebiduntasuna*. UEU. Bilbo. 104. orr.

36) Ibidem 105/109 orr..

37) 1986ko udal zentsuaren arabera Hego Euskal Herrian 2.592.363 biztanlelik 565.263k bakarrik zekiten euskara. Zenbaki horiekin alderatuz, Urola-Kostako biztanleak populazio guztiaren %2,38 ziren, baina euskal hiztun guztien %9,3, hots, euskaraz zekiten hamar pertsonatik bat aipatu zonaldean bizi zen, eta bertan jatorriz euskal hiztunak zirenen portzentaia %85koa zen.

38) Gazteleraren nagusitasun horren aurrean, ez da ahanzi behar froga jatorriz euskal hiztunak dituen eta euskarazko ereduak eskolarizazioa duen zonalde euskaldunean egin zela.

39) Aipatu probaren ezaugarriak xehe-tasun handiagoraz aztertzeke, ikus *Hizkuntza, Hezkuntza eta Elebiduntasuna* (op. cit.), 114/163. orr.

**«Badirudi nahiko argi
dagoela
soziolinguistikako
axaleko irakurketa
egitea nahikoa dela,
maila pragmatikoan,
hizkuntza gutxiagotuen
normalkuntzan lurralde
erreferentzian
oinarritutako hizkuntz
erabilpenaren irizpideak
norbanakoen
eskubideetan
oinarritutakoen
aurretik lehenesteko»**

tako (bi ikastola, hiru pribatu eta bost publiko) ikasle guztiek (1809 lagunek) hartu baitzuten parte. Arrazoi ezberdinengatik akasduak izan zitezkeen galdesortak alde batera uzteko beharrezkoa zen bereizketa egin ondoren, prozesatutako testak 1629 izan ziren guztira, eta ondorengo profilari erantzuten zioten: 9 eta 14 urte bitarteko neska-mutilak, jatorriz euskal hiztunak, %85a euskal hiztunak diren zonaldeetan bizi zirenak eta ikasketak beren jatorrizko hizkuntzan (euskaraz) egiten ari zirenak.

Hala ere, eta espero ez zen arren, euskal hiztun horiek (elebidunak) euskarazko eskolatzean aurrera egiten duten neurrian beren elebiduntasun koefizientea aldatu egiten da piskanaka, eta horrela, nahitaezko eskolatzea amaitutakoan elebidun izaten jarraituko badute ere, gaztelerarako joera izango dute. Hau da, elebiduntasunaren ikuspegitik areago dira erdaldunak euskaldunak baino. Beraian jatorrizko hizkuntza gutxiagotu egingo da (normalki 10 eta 12 urteen tartean), eta horrekin batera gazteleraren ezagutza eta erabilpena horren azkar garatuko da ezen euskara beste hizkuntzarekiko menpekotasun egoeran geratuko baita³⁸, eta bere ondorengo garapenean ere oso baldintzatua eta agian erabat mugatua egongo da gazteleran lortutako trebetasunaren ondorioz³⁹.

Pertsona horien elebiduntasun koefizienteak kalkulatu, zenbaki-emaitza positiboek adieraziko ligukete euskararen eta gazteleraren arteko harremanean lehenengoa nagusi dela kuantitatiboki. Gaztelera indartsuagoa denean indizea negatiboa izango da zenbakitan. Horixe izan zen hain zuzen ere aztertutako lagunik gehienekin, eta batezbestekoak kalkulatu, frogak hartu zituen ikastetxeetan gertatutakoa.

- Elebiduntasun orokorraren indizea: -0,4031.

- Elebiduntasun indizea 9 / 10 urteetan: +2,6070.

- Elebiduntasun indizea 10 / 11 urteetan: +2,6815.

- Elebiduntasun indizea 11 / 12 urteetan: -0,5684.

- Elebiduntasun indizea 12 / 13 urteetan: -1,4478.

- Elebiduntasun indizea 13 / 14 urteetan: -3,5078.

Ikus daitekeenez, indizeen aldaketa 10 eta 12 urte arteko adinean gertatzen da, eta epealdi hori da hain zuzen ere eskolan gaztelera nahitaez erakusten hasi zitzaiena. Hizkuntza hori, egoera soziolinguistikoko orokorrean duen nagusitasunaren laguntzaz (teorian elebiduna den bilbapen juridiko-instituzionala, zeinak gaztelera ezinbesteko hizkuntza bihurtzen duen), izugarri azkar garatzen da euskararen kaltetan, azken honek, eskolako eta jaiotzako hizkuntza izan arren, sozialki normaldua ez dagoenez garapen erritmoa oso neketsua eta motela baitu.

Baina kuantitatiboki edo zenbakietan oinarrituz emaitzak argiak badira, are argiagoak dira maila kualitatiboan. Izan ere, ekoiztutako hitzen artean diferentzia nabarmena gertatzen da aditzei dagokienez (%60,48a ekoiztu zen gazteleraz eta euskaraz berriz %39,52a besterik ez); baina,

horrez gainera, gaztelerazko terminoak kontzeptualki indar handikoak dira eta orokorrean modu egokian agertzen dira, eta euskarazkoak, aldiz, egoera aplikatu ez-abstraktoei buruzkoak dira (etxea, familia, oso hurbi-leko errealitatea...) eta ortografikoki ere gaizki idatziak agertzen dira. Horrela ba, euskararen normalizaziorik eza begibistan geratzen da frogahonen emaitzekin⁴⁰.

Hizkuntzen arteko ukipen egoera (Elebitasun) honen ondorioak elebiduntasunari buruzko testen bidez aztertu ondoren, badirudi argi geratu dela euskara, gaur egungo zirkunstantzietan, normaltze bidean egon beharrean gaztelerarekiko menpekotasun egoeran dagoela baldintza soziolinguistikorik onuragarrietan ere (ama-hizkuntza euskara duten eta euskal hiztunen zonaldean hizkuntza horretan ikasten ari direnen artean ere). Baina elebiduntasunari buruzko testak ez dira hartu behar gure hizkuntzaren gainbehera apokaliptikoa iragartzeko tresna gisa. Guztiz alderantziz, ekarpen baliotsuak egin ditzakete hizkuntzen arteko ukipen egoeretan hezkuntzaren arloan eskuhartzeko diagnostikoa egiteko eta estrategia pedagogikoak diseinatzeko. Test horiek egin ditzaketen ekarpenen mamia hurrengo pasarteetan azaltzen dena da.

Ondorio soziolinguistiko eta psiko-pedagogikoak:

Argi dago ustezko «hezkuntza elebiduna»ren emaitza jatorriz euskaldunak direnak gazteleraren aldeko elebidun bilakatzea dela, baita itxuraz beren jatorrizko hizkuntza sendotzeko eta garatzeko baldintzarik onenak ematen direnean ere. Horren arrazoia, euskararen gutxiagotze prozesuaren inertzia historikoz gain (literatur hizkuntzaren bateratze berantiarra, hizkuntz komunitatearen desegituraketa administratiboa, berekin batera bizi diren beste hizkuntzetakoa baino kultur produkzio eskasagoa, balio sozial edota prestigio txikiagoa...), hizkuntzaren normalkuntzarako bideak jorratzerakoan irizpide argirik ez izatean datza. Hezkuntzaren alorreko legeriak eta horri dagokion Irakaskuntza Administrazioak «gizarte elebiduna» badute helburu⁴¹, jatorriz gazteleraren hiztunak direnak baldintza jakin batzuetan bakarrik (Murgiltze metodoak)⁴² bilakatuko dira elebidun eta hala ere gazteleraren aldeko elebidunak izango dira. Hau da, edonola ere eta premisa horiekin, euskararen normalkuntza ezinezkoa eta pentsaezina da hezkuntzaren alorreko helburuetan. Euskararen normalkuntzarako, aitzitik, argi geratu behar du azaldutako baldintzetan hezkuntza elebidunak euskararen ordezkapen sozial eta linguistikoa aurrera egitea dakarrela.

Dena den, eta horretarako beste hizkuntza gutxiagotuen berrindartze kasuak azaletik aztertzea nahikoa delarik⁴³, hezkuntzaren ekarpena erabat beharrezkoa da honelako egoeretan eta horregatik ezin da alde batera utzi, nahiz eta askotan nahikoa ez izan⁴⁴. Beraz, hezkuntza hizkuntza gutxiagotuen normalkuntzari begira diseinatzeko beharrezkoak dira zenbait tresna, hain zuzen ere, ustez liberalak izan arren funtsean abiapuntuko egoerak legitimatzeko eta sendotzeko besterik balio ez duten hezkuntza politika

40) Egoera horren ondorio tekniko / kognitibo berruz ondorengo ikerketa-lana egin genuen Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU 096.230-Ho 53/91) finantzatuta: Rdgz. Bornaetxea, F. - Isasi, X. - Erriondo, L. *El contexto de contacto de lenguas en las vías de aprendizaje de las formas de simbolización*.

41) Zenbaiten artean. 1993. *Euskal Eskola Berria*. EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila. Donostia. 23/34 orr.

42) Isasi, X. - Erriondo, L. 1994. *Euskal Eskola Elebiduntzeko Eskola* in Isilik. 19.zk. 21/26 orr. Donostia.

43) Zenbaiten artean. 1990. *Hizkuntza / Hezkuntza*. EHU. Bilbo.

44) Alvarez, J. 1990. *Zeltikoen azken aztar-nak arriskuan Europako mendebaldean* in Ele, 7.zk. 13/48 orr. Bilbo.

45) Rdgz. Bornaetxea, F. 1995. *Elebitasuna eta Elebiduntasuna* in Ele 16. Bilbo.

46) Rdgz. Bornaetxea, F. 1991. *La référence spatiale (symbolique et psychique) dans l'apprentissage scolaire de la deuxième langue*. SPEAQ. Montreal.

47) Rdgz. Bornaetxea, F. 1994. *Euskal Curriculumaren eredu posibilitisten prospektiba* in UEU. Iruñea.

48) Rdgz. Bornaetxea, F. 1992. *Gazteleraren irakaskuntza euskal eskolan* in Isilik, 15.zk. 20/25 orr. Donostia.

49) Apalategi, J. *Euskal Irakaskuntza eta Curriculuma* in Isilik 14.zk. (1994) 5-8 orr.

50) Rdgz. Bornaetxea, F. 1993. *Alfabetakuntza kulturaren eskuraketa denean* in Ele, 8. zk. 7/17 orr. Donostia.

51) Amunarriz, K. 1994. *Euskararen erabilpenaren kale neurketa 1993: abiapuntu berria* in Bat 13-14. 77-82 orr.

52) Rdgz. Bornaetxea, F. 1994. *Hizkuntza gutxiagotutako Unibertsitateen eredu soziolinguistikoa* in Bat 13-14. 135-146 orr.

53) Ikus *Elebiduntasunaz* monografikoa, Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza aldizkarian, 12. alean argitaratua (1995). 141-238 orr. eta bereziki 202, 203 eta 209. orrialdeetako taula konparatiboak.

**«Euskaldunek bere
hizkuntzarekiko duten
leialtasun maila espero
zitekeena baino
handiagoa bada ere,
hizkuntz komunitatea
konpaktatzeko
zailtasunak handiak
dira»**

elebidunen ondorio diren ordezkapen prozesuen diagnostikoa egiten lagunduko duten tresnak, Elebiduntasunari buruzko Testaren modura.

Horrelako tresnak baliagarriak dira, aldi berean, irakaskuntzan erabiltzeko adinkako hiztegi normatiboak prestatzeko⁴⁵, bigarren eta hirugarren hizkuntzak ikasteko eredu komunikatiboak diseinatzeko⁴⁶, curriculum testuinguruaren ezaugarri soziolinguistikoei egokitzeko⁴⁷,... Azaltzen ari garenaren moduko lanekin aurreko pasartean aipatutako egoera horien diagnostikoari aurre egin ahal izango zaio.

Gainera, gure ikerketatik beste elementu sail bat ere atera daiteke irakaskuntzan aplikatzeko. Adibidez, frogetan euskara kalitaterik onena adierazten dutenak aldi berean gaztelera onena lortzen dutenak dira, baina ez alderantziz. Hortik atera daitekeen ondorio zuzena zera da, hizkuntza gutxiagotuari eskolan ematen zaion laguntzak hizkuntza menperatzailearen trebatze eskolarra arrakastatsuagoa izaten laguntzen duela, baina «hizkuntza indartsua» dei genezakeenarekin egindako hezkuntza / prestakuntza alorreko lanak hizkuntzaren eremu guztiari kalte egiten dioten interferentziak sortzen dituela⁴⁸.

Illo horretatik, badirudi argi dagoela hizkuntza gutxiagotuaren irakaskuntza formala jaiotzaz hizkuntza horretan mintzatzen direnekin sakontzea beharrezkoa dela, eta aldiz, jaiotzaz hizkuntza menperatzailea erabiltzen dutenei dagokienean egokiagotzat jotzen da menpeko hizkuntzan murgiltzeko metodoren bat, ahalik eta azkarren aplikatutako komunikazio eredu batean oinarritu dadina, erabiltzea⁴⁹. Helduei dagokienez, arrakastatsuen suertatzen ari direnak metodologia ez-formalak, kontzientziatzaileak eta anti-diglosikoak dira⁵⁰.

Konklusio orokor gisa esan dezakegu euskararen ezagutza eta gizarte-erabilpenean aurrera egiten ari garela⁵¹, baina hizkuntza gutxiagotuaren erabilera guneak (euskal eskolak, euskal unibertsitatea, udalerri euskaldunak, etabar) osatzea ezinbestekoa dela aurreratutakoa sendotzeko eta normalkuntzarantz egiteko⁵².

Izan ere, jatorrizko hizkuntza euskara duten lagunekin egindako ikerketan zehar argi geratu bada horien elebiduntasun joerak gaztelaranzkoak direla inguruneko presio soziolinguistikoaren eraginez, hori are argiago ikusi da jatorrizko hizkuntza gaztelera duten eta euskara bigarren mailako hizkuntza edo asignatura soil gisa irakasten duten hizkuntz ereduetan eskolarizatutako ikasleekin egindako ikerketekin alderatu denean⁵³. Kasu horietan «bi hizkuntzak menperatzea», Administrazioak elebitasunaren alde egindako aukeraren ondorioz helburu gisa planteatzen duena, ez da soilik lortu gabeko xedea, baizik eta bere plangintzaren porrotaren etengabeko oroitzapena.

Edonola ere, elebiduntasunaren azterketa kuantitatiboak, bere indize pertsonal matematizatuak, edo bere kontzeptualizazioaren inguruko ikerketa kualitatiboak argi eta garbi erakusten dute, elebitasun politikaren oinarri diren erreferentzia pertsonalen logikan, aukera hori euskal hizkun-

tzaren gatazka modu ez-glotofagikoan konpontzea zilegi egingo duen normalizazio politika ziurtatzeko ez dela nahikoa, eta beraz, egin behar zaion kritikak ere argia izan behar du⁵⁴.

Hala ere, egin berri ditugun ikerketa horien ildo berean, hezkuntza erreferentzia aukera pertsonalean oinarritu beharrean lurraldetasunaren irizpideetan oinarritutako murgilpenean oinarritzen denean, emaitzak askoz hobeak dira, ez bakarrik hizkuntza gutxiagotuaren normalkuntza lortzeko, baizik eta baita elebidun orekatuak sortzeko joerari dagokionez ere⁵⁵.

Hori are argiagoa da, ahal bada, Administrazio zentralak eta Autonomikoak elebitasunaren aldeko apostua egin duten arren, normalkuntzarako aukerak egiterakoan lurraldetasunean oinarritutako plangintza irizpideak erabiltzen badira, UEMAren (lehenago aipatutako Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) inguruan koordinatzen diren udalerriek egin duten moduan. Horietan aurkituko ditugu, Urolako bailaran egindako ikerketan bezala, elebiduntasun indizerik orekatuenak, eta 1989an eta 1993an egindako euskararen gizarte erabilpenaren neurketei dagokienez, euskararen kaleko erabilera normalizatuaren zifrarik altuenak eta ingurunean presentziarik handiena (euskararen ezagutza / erabilera erlazioa), nahiz eta emaitza horiekin ez diren azterketa sinpleegiak egin behar, benetako esanahia itxuraldatuko bailukete.

Hizkuntz normalkuntzarako politikek irizpide kontrastatuak behar dituzte, aurretik datozen prozesu glotofagikoak bete ez daitezene. Horretan soziolinguistika konparatuak laguntza handia eman dezake, baina hartutako ildoak norabide zuzenekoak ote den argitzeko gakoak hizkuntzaren ikuspegitik eskuhartzeko aukera ezberdinen ebaluaketak eta kontrasteak emango ditu. Komunikazio honen helburua gure egoera hobeto ezagutzeko azterketa eta erreferentzia batzuk ematea izan da, Feurbach-eri buruzko hamaikagarren tesi marxiano famatuaren ildoari jarraiki, ez bakarrik gure errealtatea ezagutzeko baizik eta aldatzen laguntzeko.

54) Euskal Autonomi Elkartean hizkuntz aldegaiaari ematen zaion garrantzi txikiaren adierazgarri bat zera izan daiteke, alegia, Arartekoa hautatzeko garaian ez dela kontuan hartu elebiduna izatearen aukera, baizik eta bai azkenean izendatua izan dena, Markiegi Jna., eta bai bere laguntzailea gazteleraren elebakarrak direla. Gertaera horrek, nolatan ere, zenbait pertsonalitateren protesta eragin du, hala nola Eusko Legebiltzarreko Lehendakari-ohietako batena (Juan José Pujana, *RIP el pueblo euskaldun*, Egin 1995eko martxoak 7).

55) Ibidem. 182 orr.